

## Laguntza ekonomikoak, Bilbo osoko etxebizitza-erakinetan igogailuak jartzeko, egiturak aldatzeko eta energia gehiago aprobetxatzeko

Bilboko Udalaren Hiri Berroneratzearen Sailak, SURBISAren bitartez, honako hauek egiten lagunduko dizu:

- **Igogailu berriak jartzea eta beste irisgarritasun hobekuntza batzuk egitea.**
- **Egiturak konpontzea eta termiten aurkako tratamendua egitea.**
- **Birgaitze energetikoa egitea, energia hobeto kudeatzeko eta eraikinetan energia berriztagarriak instalatzeko.**

## Nori lagunduko diogu?

Bilboko etxebizitza-erakinetako jabeen erkidego guztiei.

## Zein jarduketatarako?

2023an eta 2024an egin eta dagoeneko amaituta dauden obrak.

## Non eskatu behar dira?

**SURBISA**n (Bilboko hiri-birgaitzeaz arduratzen den udal-sozietatea).

Erronda kalea, 6, 48005 Bilbo

Telefonoak: 682 472 033 / 94 415 99 55

Helbide elektronikoak:

[acesibilidadestructura@surb.bilbao.eus](mailto:acesibilidadestructura@surb.bilbao.eus)

[surbisaverde@surb.bilbao.eus](mailto:surbisaverde@surb.bilbao.eus)

[www.surbisa.eus](http://www.surbisa.eus)

**Bilbao** SURBISA

## Zein dirulaguntza emango da?

- **IGOGAILUAK ETA BESTE IRISGARritasun-HOBekuntza BATZUK**  
Igogailuak jartzen eta oztopo arkitektonikoak kentzen laguntzeko.
  - % 15 (gehienez 32.000 euro), oztoporik gabeko igogailu berria bada.
  - % 10 (gehienez 12.000 euro), irisgarritasun unibertsalik gabeko igogailua.
  - % 20 (gehienez 32.000 euro), igogailua Otxarkoagan jarriko bada.
  - % 10 (gehienez 8.400 euro edo 4.200 euro), beste neurri batzuk hartzeko; esaterako, igogailuaren ibilbidea luzatzeko eta/edo oztopoak kentzeko.
  - % 100 (gehienez 2.200 euro), blokeen aurreproiektua idazteko ordainsarietarako (proiektua aurkeztu aurreko lanak).
  - % 20 igogailurik gabeko urbanizazioak eraberritzeko (gehienez 6.000 euro) eta % 10 igogailuarekin (gehienez 30.000 euro).
- **EGITURAZKO KONPONKETAK**  
Dirulaguntzak emango dira egiturazko elementuak (forjatuak, karga- eta euste-hormak, arkupeak eta zimenduak) konpontzeko. Baita termita-izurriteak eragozteko eta termita-izurriteek kaltetutako eraikinetan akaberak konpondu eta birjartzeko.
  - % 25 (gehienez 8.000 euro) egiturazko erreforma egiteko.
  - % 50 (gehienez 25.000 euro) termiten aurkako tratamendua egiteko.
- **LINEA BERDEA**  
Birgaitze energetikoa egitea, eraikina isolatzeko eta energia berriztagarriak jartzeko:
  - Energia berriztagarriak erabiltzeko jarduketak** (eguzki-panelak, aerotermia...).
  - Birgaitze energetikoa** (isolamendu termikoa fatxadetan, patioetan, teilatuetan...).
  - Espazio naturalak sortzea erabiltzen ez diren eremuetan** (abandonatutako bizitegi-inguruneetan edo osasunerako kaltegarriak direnetan, estalkietan, naturagune fisiko bihur daitezkeen patioetan...).
  - % 50 (gehienez ere 15.000 euro). 2023-01-01etik aurrerako obra-lizentziarekin.

Info **Bilbao**

**Laguntzak**  
igogailuak jartzeko,  
egiturak aldatzeko  
eta energia  
gehiago  
aprobetxatzeko



Informazio gehiago: [www.bilbao.eus](http://www.bilbao.eus) | ☎ 010

@BilbaoUdala



%100 paper birziklatua  
100% papel reciclado

